



CÁRITAS RECUERDA QUE “SIN HOGAR, PERO CON SUEÑOS” ES UNA LLAMADA A LA ACCIÓN Y A LA DIGNIDAD.

141 personas atendidas este año por Cáritas Diocesana de Vitoria viven en situación de inestabilidad residencial.

La entidad recuerda que el acceso a una vivienda digna sigue siendo un derecho vulnerado y una tarea pendiente de toda la sociedad.

Vitoria-Gasteiz, 21 de octubre de 2025.

Una vivienda no es solo un techo: es el lugar donde empieza la vida.

Con motivo del **Día de las Personas Sin Hogar**, que se celebra el **domingo 26 de octubre**, **Cáritas Diocesana de Vitoria** se suma a la campaña confederal “Sin hogar, pero con sueños”, con un mensaje que invita a mirar de frente una realidad que interpela a toda la sociedad.

La campaña nos recuerda que *soñar no es solo imaginar, es el primer paso hacia una vida mejor.*

Detrás de cada historia de sinhogarismo hay una persona con sueños y deseos tan válidos como los de cualquiera: dormir bajo un techo, tener una llave propia o sentirse parte de una comunidad que no la olvide.

Una realidad que se agrava

Durante este año, **141 personas** han sido atendidas por Cáritas en situación de inestabilidad residencial. De ellas, **77 son hombres y 64 mujeres; 45 viven en unidades familiares y 96 personas solas** (68% del total).

En cuanto al origen, el **88% son personas de origen extranjero** y el **12% restante son de nacionalidad española**.

El **26% de las personas atendidas carece de empadronamiento**, lo que les impide acceder a derechos básicos como la sanidad, la educación o la protección social.

Entre quienes sí disponen de padrón, muchas lo hacen mediante **fórmulas inestables o de conveniencia**, sin relación con su lugar real de residencia.

Cáritas Diocesana de Vitoria acompaña también a **20 personas aproximadamente** que viven actualmente en el **Centro Municipal de Acogida Social (CMAS)**, cuya falta de alternativas de vivienda impide que puedan iniciar procesos de autonomía y reconstrucción de vida.

Además, Cáritas advierte del **aumento de jóvenes sin hogar** (algunos tras haber pasado por sistemas de protección) que sobreviven en lonjas, cajeros, fábricas o situación de calle. Esta nueva forma de exclusión es más silenciosa y preocupante.

En las próximas semanas se presenta el IX Informe FOESSA, y los primeros datos apuntan a un agravamiento de la exclusión residencial y a un aumento de la precariedad habitacional en todo el país, una tendencia que también se refleja en el territorio de la Diócesis de Vitoria.

Las mujeres sin hogar: una exclusión invisible

La exclusión habitacional femenina sigue siendo **una de las caras más ocultas de la pobreza**.

Muchas mujeres viven en viviendas inseguras o en condiciones de insalubridad.

Esta situación las hace especialmente vulnerables a la violencia, el aislamiento y la pérdida de autonomía.

El hogar como punto de partida

Cáritas Diocesana de Vitoria subraya que una vivienda es el primer paso hacia la inclusión.

Sin un espacio estable donde vivir, resulta imposible acceder a un empleo, cuidar la salud o lograr un proyecto de vida.

Por ello, insiste en que el **derecho a una vivienda adecuada debe situarse en el centro de las políticas públicas**, con medidas sostenibles y una mayor coordinación entre administraciones y entidades sociales.

A los obstáculos económicos se suman las **trabas administrativas, la escasez de vivienda social y el aumento del coste del alquiler**, factores que agravan la exclusión de las personas más vulnerables, especialmente migrantes y familias con menores.

Una mirada esperanzadora

La campaña de este año, impulsada por Cáritas bajo el lema “Sin hogar, pero con sueños”, propone una mirada esperanzadora:

recordar que **la dignidad humana no se pierde con la falta de techo** y que reconstruir un hogar empieza por **reconstruir los vínculos y la confianza**.

El mensaje de la campaña es claro: **“Para. Acércate. Actúa.”**

Mirar, reconocer y comprometerse son los tres pasos imprescindibles para cambiar la realidad de quienes viven sin hogar.

Campaña Sin Hogar 2025

Cáritas invita con esta campaña a participar del encuentro con las personas sin hogar, a favorecer que puedan expresar lo que sienten, lo que piensan y lo que necesitan, tal y como se ha hecho para preparar los materiales de sensibilización. Disponibles en caritasvitoria.org

Un compromiso compartido

Cáritas Vitoria reafirma su compromiso de acompañar a las personas sin hogar desde la cercanía y la escucha activa.

Pero también recuerda que **ninguna entidad puede hacerlo sola**: es necesario el compromiso conjunto de las administraciones públicas, la ciudadanía y la comunidad

El domingo 26 de octubre, Día de las Personas Sin Hogar, es una ocasión para **detenernos y mirar con dignidad** a quienes viven sin techo, reconociendo que su **derecho a un hogar es también un deber de todos y todas**.

Más información: Mercedes Escribano Abad

945 23 28 50 – 688 71 37 27 | comunicacion@caritasvitoria.org



CARITASEK AZPIMARRATU DU “ETXERIK GABE, BAINA AMETSEKIN” EKINTZARAKO ETA DUINTASUNERAKO DEIA DELA.

Gasteizko Elizbarrutiko Caritasek aurten artatutako 141 pertsona bizitegi-ezegonkortasuneko egoeran bizi dira.

Erakundeak azpimarratu du etxebizitza duin bat eskuratzea gizarte osoaren egitekoa izateaz gain, eskubide urratua izaten jarraitzen duela oraindik.

Gasteiz, 2025eko urriaren 21a.

Etxea ez da soilik bizitoki bat, bizitza hasten den tokia baizik.

Urriaren 26a, igandea, Etxerik Gabeko Pertsonen Eguna da, eta **Gasteizko Elizbarrutiko Caritasek** bat egin du “**Etxerik gabe, baina ametsekin**” kanpaina konfederalarekin; horren helburua da gizarte osoa interpelatzen duen errealitateari aurrez aurre begiratzera gonbidatzea.

Kanpainak gogorarazten digu *amets egitea ez dela imajinatzea bakarrik, bizitza hobe baterako lehen urratsa dela.*

Etxegabetasun-istorio bakoitzaren atzean pertsona bat dago, edonorenak bezain amets eta desira baliagarriak dituen: etxe batean lo egitea, giltza propioa izatea edo ahaztuko ez duen komunitate baten parte sentitzea.

Larriagotzen ari den errealitatea

Aurten, Caritasek egoitza-ezegonkortasuneko egoeran dauden **141 lagun** artatu ditu.

Horietatik **77 gizonezkoak dira eta 64 emakumezkoak**; kopuru horretatik **45 familia-unitateetan bizi dira eta 96, berriz, bakarrik** (guztizko kopuruaren % 68).

Jatorriari dagokionez, **% 88 atzerritarrak dira** eta gainerako **% 12 espainiarrak**.

Artatutako pertsonen % 26k ez du erroldarik, eta horrek eragotzi egiten die oinarritzko eskubideak eskuratzea, hala nola osasuna, hezkuntza edo gizarte-babesa.

Errolda dutenen artean, askok **formula ezegonkorren edo komenigarrien bidez** eskuratzen dute, beren benetako bizilekuarekin zerikusirik izan gabe.

Gasteizko Elizbarrutiko Caritasek **Gizarte Harrerako Udal Zentroan (GHUZ)** bizi diren **20 pertsona ingururi** ere laguntzen die; hala ere, etxebizitza-alternatibarik ez dutenez, ezin dute autonomia eskuratzeko eta bizitza berreraikitze prozesurik hasi.

Gainera, lonjetan, kutzazainetan, lantegietan edo kalean bizi diren **etxerik gabeko gazteen kopuruak** (horietako batzuk babes-sistemetan egon ostean) **gora egin duela** ohartarazi du Caritasek; eta bazterketa-modu berri hori isilagoa eta kezkarriagoa da.

Datozen asteetan, FOESSaren IX. Txostena aurkeztuko da, eta lehenengo datuen arabera, bizitegi-bazterkeria eta -prekarietatea larriagotu eta areagotu egin dira herrialde osoan, eta joera hori Gasteizko Elizbarrutian ere islatzen da.

Etxerik gabeko emakumeak: bazterketa ikusezina

Emakumezkoen bizitegi-bazterkeria **pobreziaren alderik ezkutuenetako bat da oraindik ere**. Emakume asko etxe arriskutsuetan edo osasungarritasunik gabeko baldintzetan bizi dira. Egoera horrek bereziki bihurtzen ditu indarkeriarekiko, isolamenduarekiko eta autonomia galerarekiko sentikor.

Etxea abiapuntu gisa

Gasteizko Elizbarrutiko Caritasek azpimarratu du etxebizitza dela inklusiorako lehen urratsa. Bizitzeko espazio egonkorrik gabe, ezinezkoa da enplegua lortzea, osasuna zaintzea edo bizi-proiektu bat abiaraztea.

Horregatik, azpimarratu du **etxebizitza egokia izateko eskubidea politika publikoen erdigunean kokatu behar dela**, neurri iraunkorrekin, eta administrazioen eta gizarte-erakundeen arteko koordinazioa areagotu behar dela.

Oztopo ekonomikoei **traba administratiboak, gizarte etxebizitzaren eskasia eta alokairuaren kostuaren igoera** gehitu behar zaizkie. Faktore horiek pertsona ahulenen bazterketa larriagotzen dute, batez ere migratzaileena eta adingabeak dituzten familiaena.

Begirada esperantzagarria

Caritasek “Etxerik gabe, baina ametsekin” lelopean bultzatutako aurtengo kanpainak begirada esperantzagarria proposatzen du:

gogoraraztea giza duintasuna ez dela galtzen etxerik ez izateagatik, eta etxe bat berreraikitzen hasteko harremanak eta konfiantza berreraiki behar direla.

Kanpaina horren mezua argia da: **“Gelditu. Zatoz. Ekin.”**

Begiratzea, aitortzea eta konpromisoa hartzea dira etxerik ez dutenen errealitatea aldatzeko ezinbesteko hiru urratsak.

2025eko Etxerik gabeko Pertsonak kanpaina

Kanpaina horren bidez, Caritasek gonbidapena luzatu nahi du etxerik gabeko pertsonekin egingo den topaketan parte hartzera, zer sentitzen eta pentsatzen duten adieraz dezaten, baita zer behar duten ere, sentsibilizazio-kanpainarako materialak prestatzeko egin zen bezala. Hemen eskuragarri: caritasvitoria.org

Konpromiso partekatua

Gasteizko Caritasek etxerik gabeko pertsonen hurbiltasunetik eta entzute aktibotik laguntzeko konpromisoa berresten du.

Hala ere, era berean, gogorarazi du **ezein erakundek ezin duela bakarrik egin**: beharrezkoa da administrazio publikoen, herritarren eta komunitatearen baterako konpromisoa

Urriaren 26a, igandea, Etxerik Gabeko Pertsonen Eguna, ezinbesteko aukera da gelditu eta etxerik ez dutenei **duintasunez begiratzeko, etxe baterako duten eskubidea guztion betebeharra ere badela aitortuz.**

Informazio gehiago: Mercedes Escribano Abad

945 23 28 50 – 688 71 37 27 | comunicacion@caritasvitoria.org